

1. SEKUENTZIA		
IRITSIERA BARKUAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
1.1	Arratsaldea. Barkuko bodegan.	Sidi barkutzar baten sabelean ezkutatuta doa. Lorez beteriko zakuen artean. Bat-batean barkuko klaxonaren zaratarekin esnatu egin da.
1.2	Arratsaldea. Barkuko bizkarrean.	Kaira iristear. Berthol zorabiatuta bidaiagatik. Roke Bertholi hitz egiten. Berthol botaka.

ROKE: Ja, ja, ja... Hi bai hi txintxo, ja, ja, ja... Arrainei jaten ematen, ja, ja, ja...

BERTHOL (*Burua pittin bat jasota*): Isilduko haiz halako baten?! Zer uste duk, arrainei jaten ema//!! (*Berriro botaka hasten da*).

ROKE (*Botatzen duenari begira, burla haizez*): Ea, ea zer jan duan eee... espagetiak tomatearekin... patata frijituak... eta ah! gazta... Ja, ja, ja...

BERTHOL (*Zorabio aurpegiz, leher eginda jaikitzen da*): Basta! Nahikoa duk!! Ai, ai... Nazka-nazka eginda nagok munduan hara eta hona ibiltzen barku zazar honetan//!! (*Berriro gorakoa ematen dio*).

ROKE (*Nagusi, indartsu plantak eginez*): Etxean gaituk Berthol! Jada iritsi gaituk, eta gainera hau azken bidaia duk, beraz, aprobeixatu orain arraintxoei jaten emateko... (*Berriro botaka ari den lagunari bizkarrean kolpetxoak joz*) Tira, gero ez duk arrain gehiagorik ikusiko, eh!? Madame Banu oso pozik jarriko duk. Gaur gauean azkenekoak, zakuak bete-beteak... (*Boteretsu plantak egiten harro geratzen dira. Berthol gaizki samar*). (*Mutikoa saiatzen da ateratzen eta zarata egiten du*).

BERTHOL (*Pozetik, haserrera aldatuz*): Zakurraren biboteak! Entzun duk hori?! Zer izan duk hori?!

ROKE (*Burlaz*): Ja, ja, ja... Hire sabela kantari! (*Tripura begira*) Sabeleko zomorroa gosetuta daukak.

BERTHOL (*Lepondoko bat emanez*): Bai zera... zakurraren... p (...) hankak!. (*zelatan eta kezkatuta*) Han zerbait mugitzen ari duk, zerbait...

ROKE (*Lasai*): Lasai Berthol, lasai, zorabiatzen hasi haiz eta bisioak ikusten hasita hago...?!

BERTHOL: Akabo! Mutiko bat da!! Han dago!

ROKE: E! Egia duk! (*Maukak jasoz, borrokarako prest*) Lasai, hemen zagok El Roke! (*Karateko mugimenduak eginez*) Nik harrapatuko diat!

BERTHOL: Zakurraren belarriak!! Norbait sartu zaiguk barkuan!! (*Biak korrika hasten dira mutikoaren atzetik*).

ROKE: Kia kia!! Kia!! (*Karateko mugimenduak eginez doa*). (*Etorkina une batez ikusten dute, eta uretara saltatzen du*).

BERTHOL: Segiok!! Salto uretara!! Salto!

ROKE (*Barku ertzeraino karate eginez doa. Hanka igotzen du barku ertzera abiadan salto egiteko bezala; eta bat-batean gelditu egingo da*): Alto...! Nik ez zekiat igeri. ... (*Pentsakor*) ... Egin ezak hik salto! ... Han zihoak!!

BERTHOL: Zakurraren antiejoak!! Mukizu horrek dena deskubrituko zian!

ROKE: Ume arraioa!
 BERTHOL (*Leher eginda*): Madame Banuk hau jakinez gero... Jan egingo gaitik!
 ROKE: Jan!?
 BERTHOL: Jan! Jan, patatekin bandejan!
 ROKE: Ja, ja, ja... Hi jaten erraza zeukak, dena arrainei bota diek eta... ja, ja, ja...
 BERTHOL: Zakurraren!!Eh! Entzun ongi, ez zioagu ezer esango Madame Banuri, entzun? Jakintsuak esan zuena: “Ikusi ez duenak.... Ez du zertan ikusi!” Madame Banuri hitzik ere ez, ados?
 ROKE: Hik erraza daukak! Hitzak ere arrainei bota dizkiek-eta! Ja, ja, ja...

1.3	Hondartzan.	Pailazoak, Ximon, Andrea eta Amets hondartzan jolasten ari dira. Porrotx eta Ximon beraien traste batzuekin KAIXO hitza osatzen ari dira. Andrea oreka jolasak egiten ari da. Pirritx eta Amets eguzkia hartzen ari dira, gero bien artean pixka bat jolasten.
-----	-------------	--

PIRRITX: (*Etzanda eguzkia hartzen*).
 PORROTX: (*Porrotx, harean dago kanta bat desafinatuz kantatzen*).
 ANDREA: (*Makila batekin malabarrak egiten saiatzen ari da*).
 PORROTX: Aupa Ximon! (*Abesten hasiko da*) “Ai Ximon, Ximon, Ximon errotapian, errotapian.... Ai Ximon, Ximon, Ximon errotapian hor konpon!”
 PIRITX: Bat, bi, hiru eta lau; bat, bi, hiru eta lau (*Jolasten eta abesten*).
 XIMON: (*O letra osatzen ari da, Porrotxekin*).
 PORROTX: Eta horrela, O!
 PIRITX: Eta orain uretara!
 AMETS: Goazen!
 PIRITX: Bai!!!
 (*Amets eta Pirritx uretara joango dira. Uretan aurkituriko zapi handi batekin datoz –Sidiren zapia-*).
 PORROTX: Hau hor jarriko dugu eta...
 PIRITX: Begira, ikusi!
 PORROTX: Zer da hori?
 AMETS: Bale baten bufanda!
 PORROTX: Hara! Ba, honekin hizkia bukatuko dugu!

PIRRITX: Norentzat ari gara ordea? Txoriek ez dakite irakurtzen!

PORROTX: Pirritx, gogoratu amonak dioena, gauzak ez dira beti norbaitentzat, norbaitentzat egin behar. Gu, hemen, sentitu, pentsatu eta ekin!

ANDREA: Gainera parakaidista batek ikus dezake.

XIMON: Edo globoz pasatzen den batek!

AMETS: Edo elefante hegalaria batek irakur dezake!

PIRRITX: Bai zera! Elefante hegalaria...!

PORROTX: Pakito izurdeak irakurriko du, salto egitean!!

PIRRITX: Pakito, Pakito! Zu bai txoropito! (*Eskuak gurutzatu eta bira emango du itsaso aldera begiratuz*) Aaa!! Ez dakit Pakito izurdea izango den baina norbait dator han...!
(*Denak doaz korrika uretara*).

PORROTX: Pakitooo, Pakitooo...!! Pakitooo!!!
(*Sidi ikusten dute uretan*).

PIRRITX: Pakito ez! Mutiko bat da!! Lagun diezaiozun!!
(*Sidi hondarretara helduko da. Haurrak erdi izututa etorkinari galderak egiten, denak arrapaladan, erantzuteko denborarik gabe*).

PIRRITX: Nor zara?

PORROTX: Eta nondik zatoz? Pakito izurdearen laguna zara, ala?

SIDI: ... (*Izututa ez du ulertzen*).

PIRRITX: Eta urrunetik igerian etorri zara?

AMETS: Eta nongo arropak dira horiek?

XIMON: Nondik? Nondik zatoz?

ANDREA: Nongoa zara?

SIDI: (*Izututa galdera bonbardaketarekin*).

PIRRITX: Blai eginda zaude!

PORROTX: Bai, Matxela igelaren putzua baino bustiago zaude!!

PIRRITX: Katarroa harrapatuko duzu! Guk badugu arropa lehorra.

PORROTX: Zatoz gurekin! Hitz egin! Erantzun ba!

SIDI: (*Izututa, buruarekin ezetz eginez, ihesi bezala*).

PORROTX: Katu-arrainak jan al dizu mingaina ala? Baina aizu! Nora zoaz? Baina mekatxiporreta!
(*Sidik ihes egingo du*).

PIRRITX: Ez du, ez du gurekin etorri nahi.
 PORROTX: Aizu! Piritx baina zer...
 PIRITX: Goazen Porrotx, amonari afaria prestatzen lagunduko diogu. Aio! Aio..!
 PORROTX: Aio Pelaio!
 PIRITX: Aio azenario!

2. SEKUENTZIA		
GIZONAK NAGUSIARENGANA		
Eszena	Kokapena	Egoera
2.1	Gaiztoen gazteluan.	Nagusiaren eskua ikusiko da sua ondoan duela, dena ilun-ilun. Bere aurrean Berthol eta Roke azalpenak ematen.
<p>MADAME BANU: Iritsi zarete, ene basurdetxo pare... Ja, pentsatzen ari nintzen olatuen artean galdu ote zineten... Ekarri duzue ekarri beharrekoa?</p> <p>BERTHOL: Noski Madame...</p> <p>MADAME BANU: Eta? Non utzi dituzue?</p> <p>ROKE (<i>Pixka bat totelka</i>): Barkuan ezkutatuta Madame, Berorrek agindu bezala.</p> <p>MADAME BANU: Ongi da, ene gabelu pare... Munduko guztiak baldin badauzkagu... Gaur gauean erortzen direnak bildu eta... denak nireak izango dira... den, den denak!!! Ja, ja, ja...!!</p> <p>BERTHOL eta ROKE: (Ere) je je je je!</p> <p>MADAME BANU (<i>Bat batean tonua aldatuz lehor</i>): Zeri egiten diozue barre?! (<i>Berthol eta Rokeri lelo aurpegia geratzen zaie</i>) Tximino pare!... Arazorik izan duzue Afrikatik hona?</p> <p>BERTHOL: Dena ondo... Txintik ere ez.</p> <p>ROKE: Oso errez! Txintik ere ez.</p> <p>MADAME BANU (<i>Ameslari</i>): Dena prest badago... Bihar barkukoak deskargatu eta planari ekingo diogu...! Ja, ja, ja...</p>		

3. SEKUENTZIA		
SIDI HIRIRA BEGIRA LO EGITEKO LEKU BATEN BILA		
Eszena	Kokapena	Egoera
3.1	Iluntzea. Hiriko belardi batean.	Sidik bere ingurura begirada bat botatzen du, hiria panoramika gisan ikusiko du. Pixka bat beherako landa bat ikusiko du eta han gaua pasatzeko txabola bat egiten hasiko da inguruan aurkitutako egur, adreilu eta belarrekin.

4. SEKUENTZIA		
BIHARAMUNA		
Eszena	Kokapena	Egoera
4.1	Zerua.	Ilargia ahotik loreak isurtzen.
4.2	Herria ikusiko da urrunetik.	Goiza argitzen. Oilarraren kukurrukua entzungo da.
OILARRA: kukurruuuuuuuuu.		
4.3	Herriko plazan.	Emakume bat bere txakurra pasiatzen ari da. Txakurrari gozotasunez hitz egiten dio.
EMAKUMEA: Ai Txiki! Oi ze polita! Gaur polita zaude oso, eh!? Bai, bai, bai, bai! Haber, etorri zaitetz hona, etorri zaitetz hona politori! Ai, ai, ai, ai! Ai, ze polita zu, baino, baino.... Ez dakigu zer dugun etxean-eta! Mua! Ai, ze polita zaren!		
4.4	Zelai batean behia.	Behia geldik dago.
4.5	Herriko plazako kioskoan.	Emakume bat egunkaria eroatera doa kioskora, hango mutilarekin hitz egiten du.
SALTZAILEA: Zer moduz asteburua?		
EROSLEA: Ondo!		
SALTZAILEA: Ondo pasa dugu?		
EROSLEA: Bai!		
SALTZAILEA: Ni lanean baina gustura.		
EROSLEA: Beno, hala behar da.		
SALTZAILEA: Bai, ba.		
EROSLEA: Gaur asteleheneko kontua.		
SALTZAILEA: Horixe!		
EROSLEA: Beno, agur.		
SALTZAILEA: Aio guapisima!!		

5. SEKUENTZIA		
IKASTOLARANTZ		
Eszena	Kokapena	Egoera
5.1	Goiza. Ikastolara bidean doaz.	Porrotx, Ximon, Kattalin eta Andrea ikastolara bidean zelai batetan gelditzen dira Porrotxen motxilak asko pisatzen duelako.
<p>PORROTX: <i>(Motxila erraldoi batekin dator)</i>: Ai! ai! Katxiporreta! Etxeko lan gehiegi bidaltzen digu maisuak. <i>(Motxila lurrean uzten du)</i>.</p> <p>XIMON: Hori gelan egin ez dituzulako da, Porrotx!</p> <p>ANDREA: Hara hemen, gure langilea!</p> <p>XIMON <i>(Behatza buruan jarrita, pentsatzeko keinua eginez neskari)</i>: Azkarra denak ez du langile izan beharrik!</p> <p>PORROTX: Ba nik, hamaiketakoa egingo dut indarrak hartzeko!!</p> <p>MAKINTOSH <i>(Bururik jaso gabe)</i>: Goizeko zortzietan hamaiketakoa?</p> <p>PORROTX: Ba bai!</p> <p>XIMON: Aizu Porrotx, eta Pirritx, non da Pirritx?</p> <p>PORROTX: Egia da, Pirritx! Pirriiiiiitx! <i>(Porrotxen motxilatik ateratzen da Pirritx)</i>.</p> <p>PIRRIITX: Iuju ijuuuuu... Egunon!</p> <p>PORROTX: Hara! Begira non dagoen!</p> <p>PIRRITX: Ja, ja, ja...</p> <p>PORROTX: Katxiporreta!! Ez zenidan bokata jango ezta, Pirritx?</p> <p>PIRRITX: Ez dut behar izan, batere nekatu gabe etorri naiz-eta etxetik!</p> <p>PORROTX: Ja! <i>(Euren aldamenean, etxola bat eta mutikoaren hankak ikusten dituzte)</i>.</p> <p>PIRRITX: Hara! Norbait lo dago hor! <i>(Hurbildu egingo dira)</i> Atzoko mutikoa da!</p> <p>MAKINTOSH <i>(Makinitarekin ari den bitartean, begiratu gabe)</i>: Zein mutiko?</p> <p>PORROTX: Aizu Pirritx, nire bokata? Zuk jan al duzu nire bokata, e?! <i>(Porrotx eurengana hurbiltzen da)</i>.</p> <p>PIRRITX: Ixo... Porrotx, esnatu egingo duzu eta...</p> <p>PIRRITX: Atzo ezagutu genuen hondartzan.</p> <p>PORROTX: Katu arrainak jan dio mingaina, alajaina!</p> <p>PIRRITX <i>(Ozen)</i>: Ez dio katu-arrainak mingaina jan Porrotx!</p>		

SIDI: *(Sustoz esnatu eta begira geratzen zaie).*
 PORROTX: Begira! Esnatu egin duzu!
 ANDREA: Hemen egin duzu lo?
 KATTALIN *(Erdi bere baitarako)*: Hemen lo... Ai ama...!
(Sidi izututa dago).
 PIRRITX: Gogoratzen zara gurekiin?
 ETORKINA: *(Izututa, burua ezetz bezala mugituz).*
 KATTALIN *(Mespretxuz)*: Gogoratzen da, baina lotsatuta dago.
 PIRRITX: Ez dago lotsatuta, ikaratuta baizik. Hara, gure ikastola han dago, nahi baduzu etorri gurekin!
 PORROTX *(Eskuekin etortzeko esaten)*: Goazen...!
 SIDI: *(Ezetz buruarekin).*

6. SEKUENTZIA		
IKASTOLAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
6.1	Ikastolako sarrera.	Haurrak eta pailazoak ikastolara sartzen ari dira. Sidi beraien atzetik doa, erdi izkutatuta.
PIRRITX: <i>(Porrotxi hitz egiten)</i> Azkar, azken putz!		
6.2	Gela barruan.	Maixua hitz egiten ari da, denak adi-adi daude berari begira.
IRAKASLEA: Sei kontinente dira munduan. <i>(Sidi kanpoan dago zain)</i> Batean, Antartidan, izotza besterik ez dago. <i>(Kanpoan Sidi zain dago).</i> IRAKASLEA: ...Hau Afrika da, eta gu hemen gaude, Euskal Herrian. PORROTX: Eta izotzetan bizi direnek zer jaten dute? Izoziak bakarrik? Ju, ju, ju. IRAKASLEA: Arrantza egiten dute izozpean. PIRRITX: Eta orduan, basamortuan bizi direnek zer arrantzatzen dute? IRAKASLEA: Basamortuan ez dute arrantzarik egiten. Basamortuan, ganbelu esnea, eta landareak eta halakoak jaten dituzte. PORROTX: Eta polboroiak ere bai! Ju, ju, ju... DENEK: Ja, ja, ja... KATTALIN <i>(Bere baitarako baina ozen)</i> : Basamortua... Ze aspergarria... Telebistarik gabe, dendarik gabe... Buf!		
6.3	Goiza. Ikastola kanpoan, atarian.	Sidi banku batean eserita, besteen zain.

7. SEKUNTZIA		
IKASTOLATIK IRTEERA		
Eszena	Kokapena	Egoera
7.1	Ikastolan, gelatik ateratzen.	Txirrinak joko du eta denak korrika aterako dira gelatik eta ikastolatik.
<p>AMETS: Begira aizue, begira, atzoko mutikoa hemen da berriz!</p> <p>PORROTX: Goizean ere ikusi dugu. Akaso bera ere izozkien herritik etorriko zen... Eeennn!</p> <p>AMETS: Edo basamortutik!</p> <p>PIRRITX: Poliki-poliki hitz eginez saiatuko gara, ea horrela ulertzen digun.</p> <p>PORROTX: Bai, NONGOA ZARAAAAA? (<i>Oihuka</i>).</p> <p>SIDI: ...(<i>Belarriak tapatuta</i>)</p> <p>PIRRITX: Ozenago ez Melontzio! Polikiago! (<i>Sidiren ondoan eseriko da</i>) Non-go-a-za-raaa?</p> <p>SIDI: ...</p> <p>KATTALIN: Horrek ez du tutik ere ulertzen...</p> <p>AMETS: E?! Gelako mapa ekarriko dut, eta esan dezala nongoa den (<i>Korrika joaten da</i>). (<i>Amets maparekin heltzen da. Mapa zabaldu, eta Pirritxek etorkinaren hatza heltzen du, adieraziz, esateko nongoa den</i>).</p> <p>PIRRITX (<i>Bitartean eskuekin esajeratuki lagunduz</i>): E-a non-go-a za-ren? Non-dik e-to-rri za-ren?</p> <p>PORROTX: Ez dizu ulertzen, Pirritx!</p> <p>ABARTXI: Kaixo lagunok!</p> <p>DENEK: Aupa Abartxi!!</p> <p>ABARTXI: Nik lagunduko dizuet!</p> <p>ABARTXI: Begate me sirmi (<i>Beraien hizkuntzan hitz egiten dio Sidiri</i>).</p> <p>SIDI: Tiniti.</p> <p>ABARTXI: Basamortukoa da, Saharatik dator.</p> <p>PORROTX: Ba guk atzo ezagutu genuen hondartzan.</p> <p>AMETS: Bai. Igerian iritsi zen bere herritik.</p> <p>ABARTXI (<i>oso goxo</i>): Igerian? Ez da posible. Gure herria, Euskal Herritik oso urrun dago... (<i>Haurrak, ez ulertzeko aurpegiz geratzen dira</i>).</p> <p>PORROTX: Galdeiozu izena Abartxi.</p>		

ABARTXI: Bege nismen? Beze kisen?
 SIDI: Sidi, Sidi.
 ABARTXI: Sidi da bere izena, Sidi da.
 PORROTX: Sidi! Oso polita, Sidi!
 PIRRITX: Sidi!
 PORROTX (*Ulertzen dielakoan, azkar-azkar hitz egiten*): Sidi, gurekin etorri eta hiria erakutsiko dizugu, parkeak, plazak, kaleak...
 ABARTXI: Porrotx, Porrotx, lasai! Hain azkar hitz eginda ez dizu ulertuko. Poliki-poliki hitz egiten badiozu, azkar ulertuko dizu. Gure herrian, oso azkarrak gara hizkuntzak ikasten...
 PIRRITX: Ea, ni saiatuko naiz! (*Poliki poliki ulertzeko moduan, eskuekin asko lagunduz*) Nahi duzu gure hiria erakustea?
 SIDI (*Irri egiten du eta buruarekin baietz*).

8. SEKUENTZIA		
BIDEO KLIPA (HIRIA ERAKUSTEN)		
Eszena	Kokapena	Egoera
8.1	Hiria.	Pirritx eta Porrotx hiria erakusten ari dira. Denak autobusean doaz hiria ikusten eta abesten.
8.2	Hirian, zentro komertzial baten aurrean.	Abestia bukatzen ari da. Pailazoak eta haurrak zentro komertzial baten aurrean daude; bat-batean Kattalinen mugikorrek jotzen du.
Pipiribiriririii... KATTALIN (<i>Telefonoz</i>): Zaudete! Baaai? Bai!! Segituan! (<i>Lagunei</i>) Askaria prest dago! DENAK: Aupa! (<i>Joan egiten dira</i>).		

9. SEKUENTZIA		
TXIKI PARKEN		
Eszena	Kokapena	Egoera

9.1	Txiki Parkeko jolas lekuan.	Jolasten hasteko prest daude.
<p>PIRRITX: Aizue! Nola liteke! Sidik hiria ezagutu du, baina gu, gu oraindik ez gaitu ezagutzen. PORROTX: Matazaren jolasarekin ikasiko ditu gure izenak. AMETS: Amets, Pirritx. PIRRITX: Pirritx, Makintosh. MAKINTOSH: Makintosh, Kattalin. KATTALIN: Kattalin... Porrotx. PORROTX: Eta Porrotx, Andrea. ANDREA: Andrea, Ximon. XIMON: Ximon, Sidi. SIDI: Sidi, Sidi.</p>		
9.2	Txiki Parken, mahai inguruan.	Kattalini zorionak abesten, merienda jaten hasiko dira.
<p>DENEK: “Zorionak zuri, zorionak beti...” (<i>Zorionak abesten</i>). (<i>Kattalinekin putz egingo du eta tartako kandelak itzaliko ditu</i>). PORROTX: Txerripotxinek adina jango dut! Ju, ju, ju... PINPIRINA: Gominola gorriak eta bihotz formakoak niretzat bakarrik dira, ez ukitu e! PIRRITX (<i>Ipurdiko bihotza erakusten du</i>): Begira Kattalin, begira!! PORROTX: Kontuz Pirritx, ipurdia jango dizu! (<i>Umeak plastikozko janaria jaten ari dira zoro moduan, eta Sidi harrituta, umil begira</i>). PIRRITX (<i>Bi otzara txiki seinalatuz</i>): Hara, amona Josefinaren baserriko gereziak eta merkatuko sagarrak ekarri ditut! PORROTX (<i>Gominolak ahoan sartuz</i>): Horiek gero jango ditugu, Pirritx! PIRRITX: Ez al duzu sagarrak hartu behar...? PORROTX (<i>Gominolak jaten, Makintoshi</i>): Pasaidazu kola mesedez. Eskerrik asko! (Edan eta korroskada bat botako du). PIRRITX (<i>Sidiri</i>): Begira Sidi, hau gerezia da, ge-re-zi-a. SIDI: Gerezia. PIRRITX: Hara, sagarra, sa-ga-rra. SIDI: Sagarra. PORROTX (<i>Izurdearen gominola eskuetan</i>): Eta hau Pakito izurdea! I-zur-de-a. Aupa Pakito, txapeldun!! (<i>Kok kola basoaren barruan botatzen du eta edan egingo du</i>) Ju, ju, ju... Kar, kar, kar...</p>		

9.3	Txiki Parken, mahai inguruan.	Denak daude festan, dantzan, abesten. Gurasoak etorriko dira haurren bila eta beraiek ere dantzan hasten dira izkina batean. Pixka bat beranduago Kattalinen aita dator telefonoz hitz egiten eta haserre.
<p>AITA: Baina, beno, beno, beno, ze kuxidade da hau? Benga, etxera! Oso berandu da eta! Benga!</p> <p>DENEK: Eeez, etxera ez!</p> <p>KATTALIN (<i>Bere aitaren hitzak eta papera errepikatuz</i>): Aizue, oso berandu da eta guztiok etxera, e!</p> <p>PORROTX: Ala, mekatxiporreta!</p> <p>PIRRITX: Amonaaaa...</p> <p>PORROTX (<i>Erdi negarrez</i>): Josefina... A ze tripako mina...</p> <p>PIRRITX: Amonaaa!! Lagun berria egin dugu?! Etor liteke gurekin baserrira... Meseee!</p> <p>AMONA JOSEFINA: Bai noski, bai. Ea, maitea, nor zara zu?</p> <p>SIDI: Sidi.</p> <p>AMONA JOSEFINA: Sidi? Ea ba, Sidi, goazen, goazen baserrira!</p>		

10. SEKUENTZIA		
AMONAREN BASERRIAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
10.1	Baserrian, logelan. Pailazoak eta Sidi ohe berean.	Pirritx, Porrotx eta Sidi denak ohe berean etzanda, lotan. Porrotx zurrungaka ari da eta Sidi ametsetan hitz egiten. Pirritxek ezin du lorik egin.
<p>PORROTX: <i>Zzzz.....</i></p> <p>SIDI (<i>lo dagoen bitartean</i>): Temar.</p> <p>PORROTX: <i>Zzzz..... (Zurrungaka)</i></p> <p>SIDI: Temar.</p> <p>PIRRITX: Arraioa! Hemen ezin da lorik egin!! Azkenean, Joxepa behiaren ondora joan beharko dut lotara...</p> <p>ETORKINA: Temar.</p> <p>PORROTX: <i>Zzzz.....</i></p> <p>PIRRITX: Sidik lotan esna dagoenean baino gehiago hitz egiten du. (<i>Sidiri begira geratzen da</i>).</p>		

SIDI: Temar.

PIRRITX: Zer dio honek? (*Bestaldera jirutzen da*) Porrotx esnatu, Porrotx! Entzun, entzun zer dioen Sidik, Porrotx!

PORROTX (*Zurrungaka, ametsetan, hizketan*): Pakitooo, Pakitooo...

PIRRITX: Ze Pakito eta ze txiribito?! (*Desesperatuta geratzen da Pirritx, begiak zabalik*) Oooohhh!

SIDI: Temar., temar...

11. SEKUENTZIA		
GAUA		
Eszena	Kokapena	Egoera
11.1	Gaua. Zerua ikusiko da ilargiarekin	Ilargiak, gauero bezala, jendea lo dagoenean, loreak isurtzen ditu.
11.2	Madame Banuren gela	Madame Banu pantailari begira
MADAME BANU: Gaua nirea banu... Denbora hatzez zenbatu ahal banu... Munduaren azken bira geldiarazi ahal banu... Banu... Banu... (<i>Abanikoa ireki eta bere aulkian biratuko da</i>) Banu... Oh! Nire loretxoak.... Eta zuek laster denak hemen izango zarete! Ja, ja, ja... Eta zu... Nire ederra, nire satelitetxo argala, gizenduko zara, gizenduko zara eta orduan, nirea izango zara, nirea! Ja, ja, ja...		
11.3	Gaua. Mendian, zelai batean	Berthol eta Roke ilargiak isurtzen dituen loreak biltzen ari dira.

12. SEKUENTZIA		
BIHARAMUNA		
Eszena	Kokapena	Egoera
12.1	Herria ikusiko da urrunetik.	Goiza argitzen. Oilarraren kukurrukua entzungo da.
OILARRA: Kukurrukuuuuuuuuu.		
12.2	Herriko plazan.	Emakume bat bere txakurra paseatzen ari da.
EMAKUMEA: Gaur zer? Zigortu egin beharko zaitut, azkenean? E! Zer ari zara, ordea? Hola ez, eh, hombre! Eske horrela jartzen bazara etxean utziko zaitut, e! Zigortuta!		
12.3	Zelai batean behia.	Behia geldirik dago.

12.4	Herriko plazako kioskoan.	Emakume bat egunkaria eroatera doa kioskora, hango mutilarekin hitz egiten du.
<p>SALTZAILEA: Egunkaria, beti egunkaria. Aiba egunkaria!</p> <p>EROSLEA: Beno, tori (<i>Dirua emango dio</i>). Hala, aio!</p> <p>SALTZAILEA: Eh! Euro bat dela, ez berrogeita hamar zentimo!</p> <p>EROSLEA: Hala, hor konpon!</p>		

13. SEKUENTZIA		
GOSARIA		
Eszena	Kokapena	Egoera
13.1	Baserriko atarian.	Porrotx eta Sidi gosaltzeko prest. Beste haurrak etorriko dira gosaltzera.
<p>AMETS: Egunoon! Egunoon!</p> <p>AMONA JOSEFINA: Egunon denoi! Ea, gosari ederra prestatu dizuet gaur. Goserik bai?</p> <p>DENEK: Bai!</p> <p>AMONA JOSEFINA: Goazen ba! Eseri!</p> <p>KATTALIN: Aaaj! A ze behi usaina dagoen etxe honetan, ezta?</p> <p>PORROTX (<i>Eskuak buruan jarrita adar moduan</i>): Mmmuuuu!!</p> <p>MAKINTOSH: Eta Pirritx? Oraindik lo al dago? (<i>Pirritx azaltzen da egundoko begi-zuloekin</i>).</p> <p>AMETS: Baina ze aurpegi da hori? Ametsetan lanean aritu zara ala?</p> <p>ANDREA: Bai, Joxepa behiari sehaska kantak kantatzen!</p> <p>DENEK: Kar, kar, kar...</p> <p>PIRRITX: Ez da batere barregarria. Gau osoan ezin izan dut lorik egin!</p> <p>PORROTX: Nik ere ez Pirritx eta orain, orain logure naiz!</p> <p>DENAK (<i>Harridura aurpegiz, entzuten</i>).</p> <p>PIRRITX: Ze logure eta ze espinaka pure! Gau osoa zurrungaka eman duzu, Porrotx!</p> <p>PORROTX: Ja, ja, ja...</p> <p>PIRRITX: Eta zu Sidi, hizkietan aritu zara etengabe, ametsetan, e e... ”<i>Temar, temar...</i>” esaten zenuen, ”<i>Temar, temar</i>”...</p>		

PORROTX: Ez zara isildu ere egin Sidi! Nik ere entzun dizut Tomasi deitzen: Tomas! Tomas!
 PIRRITX: Tomas ez! “*Temar*” esaten zuen. Zer arraio da delako “*temar*” hori?
 PORROTX: Hori! Zerekin aritu zara ametsetan!
 SIDI: Ba, “*temar*” lore bat oso polita da. Nire herrian amonak eta aitonak loreak biltzen dituzte. “*Temar*” Gaueko lorea da.
 PORROTX: Kontaiguzu, kontaiguzu!

14. SEKUENTZIA		
SIDIREN ISTORIOA FLASH BACK ERAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
14.1	Kontakizuna basamortuan.	Sidik Euskal Herrira nola iritsi zen kontatuko du off ahotsean irudi batzuk ikusiko direlarik.
<p>SIDI: Gaueko loreak gaitzak sendatzen ditu gure herrian, mina duenari mina baretu, triste dagoenari irribarrea sortu. Nire arreba gaixorik dago eta ni lorearen bila irten nintzen, sabeleko mina kenduko zion lorearen bila. Herritik irten nintzen bazter guztietara begira, aitak eta aitonak esandako leku guztietan begiratu nuen. Baina beti loreak egoten ziren lekuetan ez zegoen bat bera ere. Eta lurra ur bihurtzen den lekura ailegatu nintzen, lurraren amaierara, nire herriko inor iritsi ez den lekura.</p> <p>Eta han, gizon zuriak ikusi nituen. Eta gizon zuriak loreak zeramatzen. Eta ni loreen bila joan nintzen gizonen atzetik. Eta bat-batean harrapatuta geratu nintzen. Eta itsasontziak zuengana ekarri ninduen. Baina ezin izan zuen lorerik hartu.</p>		

15. SEKUENTZIA		
HAURRAK MARTXAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
15.1	Baserriko atarian.	Sidik besoan duen tatuaiara erakusten die.
<p>SIDI: Begira, hau Gaueko lorea da. PIRRITX: O! Zein polita! Beharbada hemen aurkituko dugu.</p>		

<p>AMETS: Guk lagunduko dizugu bilatzen! ANDREA: Bai! Goazen, azkar! PORROTX: Bai, mugi, mugi!!</p>		
15.2	Baserritik herrira abiatuko dira bakoitza bere aldetik.	Bat-batean denak hasten dira lore bila: Kattalinek ezkon berrien loreak hartu ditu. Makintoshek egunkaria irakurtzen ari den emakumeari txapela eta peluka kendu dizkio. Porrotxek amonaren lorontziko lorea hartu eta bere ordeaz beste zerbait utzi du. Pirritxek dutxako jostailuzko lorea hartu du. Andreak eta Ximonek bikote maiteminduari eskuetatik kendu diete lorea.
<p><i>(Bikote maitemindua parkean).</i> AIORA: Itxi begiak eta emaidazu eskua. JOXE MARI: Begiak zabalduko ditut? AIORA: Bai! JOXE MARI: Baina, zer da hau? <i>(Amona Josefina leihora aterako da loreak ureztatzeko asmotan. Ametsek dutxako toaila hartu du).</i></p>		
15.3	Berriro denak baserriko atarian, mahai inguruan.	Denak bateratsu iritsiko dira eta bakoitzak aurkitutako lorea ekarriko du.
<p>PIRRITX: Gaueko lorea aurkitu dudala uste dut!! <i>(Bere lorea mahai gainean jarritz).</i> PORROTX: Nik ere bai! <i>(Bere lorea, mahairatuz)</i> Ju, ju, ju... AMETS: Ba nik hau aurkitu dut. XIMON eta ANDREA: Eta nik hau! <i>(Biek batera esanaz).</i> KATTALIN: Begira nik zer aurkitu dudan! Ezkonberriarenak! MAKINTOSH: Nik hauek aurkitu ditut... SIDI: Hemen ez dago Gaueko lorarik! PORROTX: Katxiporreta! Nolabait aurkitu behar dugu ba!</p>		

16 SEKUENTZIA		
INFORMAZIO BILA		
Eszena	Kokapena	Egoera
16.1	Ikastolan, gelan maisuarekin.	Maisua bere mahaian eserita dago eta pailazoak eta haurrak inguruan daude Gaueko loreari buruzko azalpena entzuteko prest.
<p>PIRRITX: Gaueko lorea! Gaueko lorea! PORROTX: Ba al dakizu zein den? IRAKASLEA: Baai... “Lunantus anuus”... Konposatuen familiako belarkara. Zurtoin zutikor zilindriko zatikatua doakiola zigi-zaga... Hosto txandakatu amorfoideak kolore kiri-koro-kirioak dituena... Baaai... <i>(Umeei begira, konklusioa emanaz)</i> Oso lore berezia! <i>(umeak harri eta zur, harritu aurpegiz entzuten).</i> DENEK: Bai <i>(larri, larri)</i>, eskerrik asko... IRAKASLEA: Bitxia benetan. <i>(Umeei elkarri begiratzen diote. Ez dute ezer ere ulertu. Disimuloz aldenduko dira).</i> PIRRITX: Ez dut tutik ere ulertu! MAKINTOSH: Badakit! Interneten begiratuko dugu. AMETS: Eta liburutegian ere! PIRRITX: Goazen, goazen, goazen...</p>		
16.2	Informatika gelan.	Pirritx, Sidi, Kattalin eta Makintosh informatikako gelan ikusiko ditugu interneten informazioa bilatzen.
<p>PIRRITX: Hemen aurkituko dugu! MAKINTOSH <i>(Idatzi ahala ozen hizketan)</i>: Gau-e-ko... KATTALIN: Ai, gero nire izena sartu dezakegu, ea zer gertatzen den! MAKINITA: ...Lo-re-a. KATTALIN: Gero nire izena, Kattalin Pinpirin! MAKINTOSH: Baietz baratzuri! Hemen da! PIRRITX: Ongi, ongi Marimondongi! Aurkitu dugu! MAKINTOSH: Bai, baina 1.367 aukera daude! <i>(Zerrenda luuuuze bat pantailan).</i> PIRRITX: Oooh! Saia gaitezen ala ere!</p>		

16.3	Liburutegian.	Porrotx komiki bat irakurtzen, Andrea, Amets eta Ximon informazio bila.
PORROTX: Ju, ju, ju... ANDREA: Ixo, Porrotx!		
16.4	Informatika gelan.	Ordenagailuan begiratzen.
MAKINTOSH (<i>Ozen irakurtzen</i>): Gau zoroetako zure loretxoa nauzu... Ez!		
16.5	Liburutegian.	Porrotx komiki bat irakurtzen, Andrea, Amets eta Ximon informazio bila.
PORROTX: Ju, ju, ju... ANDREA: Isiltzeko! XIMON: (<i>Liburu dorre bat dakar eskuetan</i>). AMETS: Hara! Hau izan liteke! PORROTX: Bai hori da! Orria eramango dugu lagunei erakusteko! XIMON: Bai zera! Zoroak! Nola puskatuko dugu orria! AMETS: Lasai! Marraztu egingo dugu! (<i>Ametsek eskuz kopiatuko du lorearen irudia</i>). PORROTX: Txupi, txupi, txupi, txupi, Amets!		
16.6	Informatika gelan.	Badirudi zerbait aurkitu dutela.
MAKINTOSH (<i>Ozen irakurtzen</i>): Gaueko lorea, munduan zabalduetako lorea zen... Bai! Hemen da! Hemen da! SIDI: Hori da! Hori da! PIRRITX: Inprimatu dezagun lagunei erakusteko! PINPIRINA: Orain nire izena, ea zer gertatzen den!: “Kattalin Pinpirin”! (<i>Bere izenarekin armarri bat azalduko da pantailan</i>) Ooooh!		
16.7	Haurren txokoan	Bakoitzak aurkitutako informazioa erakutsiko du.
KATTALIN: Irakurri, irakurri! PORROTX: Aupa lagunok! AMETS: Lortu dugu! ANDREA: Bila eta bila aritu ondoren zerbait aurkitu dugu. PIRRITX: Bai! Berdin-berdinak dira! Begira! PORROTX: Katxiporreta! Nik ez dut sekula santan horrelakorik ikusi. PIRRITX: Nondik ateratzen ote dira?		

MAKINTOSH: Hemen dio, lore majikoa dela. Eta dohain misteriotsuak dituela.
 PIRRITX: Bai! Horregatik behar du Sidik, arreba sendatzeko!
 PORROTX: Sidik bai, baina gizon horiek? Zertarako behar dute gizon horiek hainbeste lore? Familia guzti-guztia gaixorik daukate ala? Ju, ju, ju... Baina Sidi! Nora zoaz?
 PIRRITX: Sidi!!
 SIDI: Begira, (*Behatzarekin seinalatuz*) itsasontzia hango hura da.

17. SEKUENTZIA		
KAITIK GAIZTOEN ZULORA		
Eszena	Kokapena	Egoera
17.1	Arratsaldean, kaian.	Berthol eta Roke barkutik loreak ateratzen ari dira. Pailazoez eta hurrek lore zaku guztiak ikusiko dituzte kamioi batetara sartzen norabait eramateko. Pirritxek behatza ahoan jarriko du lagunei isilik egoteko esanez eta pausu txiki isiletan kamioirantz doa. Lurrean dagoen zaku huts bat hartuko du eta lagunengana itzuliko da berriz. Pirritx zakuan sartuko da.
<p>BERTHOL: To! Azkena duk! E! Bat utzi dek! <i>(Rokek Pirritx dagoen zakua ikusiko du. Ulertu ezinezko hizkuntza batean Bertholi zaku bat falta dela esango dio. Hasiera batean kamioitik metro batzuetara ikusiko du, baina Pirritxek zakutik hankak atera eta pausu batzuk emango ditu. Rokek berriro begiratzen duenean Pirritx kamioi ondoan dago, Rokek harriduraz begiratuko du, baina zakua hartu eta kamioi barruan utziko du).</i> <i>(Rokek Pirritx dagoen zakua, besteen ondoan utzi eta kamioiko atea ixtera joango dira biak).</i></p>		
17.2	Gaiztoen kamioian.	Pirritxen asmoa kamioi barruan gaiztoen gordelekura iristea da. Baina berak ez du jakingo non dagoen eta nora doan, kamioiaren zirrikitu batetik ikusten dituen erreferentzia batzuk baino ez ditu. Berthol eta Roke gidatzen ari diren bitartean abesten ari dira.
17.3	Kamioiaren atzetik korrika.	Porrotx eta haurrak kamioiaren atzetik korrika doaz. Kamioia aldapa behera doa.
<p>PORROTX: Mekatxiporreta!! (<i>Kamioiak ihes egin die. Arnasestuka daude denak</i>) Lagunok, ihes egin digu!</p>		

18. SEKUENTZIA		
PIRRITXEN BILA		
Eszena	Kokapena	Egoera
18.1	Pirritx kamioi barruan zakuen artean	Izututa dago. Mugikorra aterako du eta lagunei mezu bat idatziko die
PIRRITX: Aldapa behera		
18.2	Porrotx eta haurrak zuhaitz baten azpian etsita	Denak daude arnasestuka, ia etsi dute Pirritx begi bistatik galdu dutelako. Bat-batean Kattalinen mugikorrak joko du.
<p>Pipiribiribiiii</p> <p>KATTALIN: Hara! Mezu bat bidali didate! Aldp! Nork bidali dit mezua? (<i>Mugikorrari begira ari da, ez du ulertzen mezua norena den, irakurri egingo du</i>) Aldp...</p> <p>PORROTX: Badakit! Aldap prum! Puzkarra izango da!</p> <p>KATTALIN: Badakit! Aldapa, aldapa behera!</p> <p>PORROTX: Orduan Pirritx izango da! Kamioia aldapa behera joan da!</p> <p>MAKINTOSH: Ba goazen bere bila!</p> <p>XIMON: Berebila? Ze berebil?</p> <p>ANDREA: Bere bila!</p> <p>AMETS: Goitibehera bat eginda iritsiko gara!</p>		
18.3	Beraien tokian goitibehera egiteko materialarekin.	Kamara azkarrean ikusiko da. Denen artean goitibehera bat eraikiko dute aldapa hori azkarrago jeisteko. Goitibeheran jeisten ikusiko ditugu. Belar meta baten kontra joko dute.
PORROTX (<i>Min aurpegiarekin</i>): Katxiporreta! Ze belar meta!		
18.4	Kamioia.	Berthol eta Roke kamioian kantari doaz, pozik beraien lanarekin.
18.5	Denak elkarrekin.	Pirritxek beste mezu bat idatziko du. Kattalinen mugikorrak berriz joko du.
<p>PIRRITX: Maldan...</p> <p>Pipiribiribiribiiiiiiiiiiiiii.</p> <p>KATTALIN: Hara! Beste mezu bat! Maldan...</p> <p>PORROTX: Zer arraio da hori! Maldan g, maldan... Arre-arre maldango (<i>Abesten hasiko da</i>)</p> <p>KATTALIN: Gora! Maldan gora!</p>		
18.6	Traktorean.	Traktorean belar artean etzanda eta ezkutututa joango dira Porrotx eta haurrak.
18.7	Pirritx kamioi barruan.	Pirritx kamioian zaku artean dago, mugikorra eskuetan du mezu bat idazteko.

18.8	Txorimaloaren ondora iritsiko dira.	Korrika txorimaloaren ondora iritsiko dira. Baina bi bide daude eta ez dakite nondik jarraitu.
<p>PORROTX: Mekatxiporreta! Eta nondik joan behar dugu oraingoan! Pipiribiribiribiiiiiiiiii (<i>Mugikorra</i>). KATTALIN: Txorimalo?! PORROTX: Txorimalo! Itxaron! (<i>Txorimaloarengana hurbiltzen da eta belarrira hitz egiten dio</i>). Kutxi, kutxi, kutxi, kutxi....! (<i>Txorimaloak soinu batekin erantzungo du</i>). PORROTX: Ju, ju, ju... Hemendik!</p>		
18.9	Pirritx kamioian.	Kamioitik kanpora begira ari da non dagoen ikusteko asmotan.
PIRRITX: Hara! Ilunduko du! (<i>Beste mezu bat idatziko du</i>).		
18.10	Haurrak basotik korrika ateratzen.	Porrotx eta haurrak korrika dabilta Pirritxen atzetik. Basotik atera dira baina orain ez dakite nora jo.
<p>Piripiribiribiribiiiiiiiiii (<i>Mugikorra</i>). KATTALIN: Geldi! Beste mezu bat! (<i>Irakurtzen hasiko da</i>) Mendingo barrena? DENEK (<i>Tunela seinalatuko dute</i>): Tunela!! (<i>Tunelean sartuko dira korrika</i>).</p>		
18.11	Pirritx kamioian.	Burua aterako du atzeko aldetik non dagoen ikusteko. Goi aldean dorrea ikusiko da.
18.12	Tunelaren irteera.	Porrotx eta haurrak tuneletik ateratzenitsuak bezala bakoitza makila txuri batekin.
18.13	Pirritx kamioian.	Beste mezu bat idatziko du Pirritxek.
PIRRITX: Mendia eta dorrea.		
18.14	Madame Banu bere gelan.	Madame Banu gustura. "Aaaaaa" entzuten zaio.
18.15	Gaiztoen dorrea ikusten da pixka bat gorago.	Berthol eta Roke kamioitik zakuak ateratzen ari dira, lurrean utzi dituzte eta banan-banan lepoan hartu eta barrura eramango dituzte. Pirritxen zakua ere beste guztiekin dago.
18.16	Madame Banu bere gelan.	Bakarrizketan, gustura bere burutapenekin.
<p>MADAME BANU: Nireak, nireak zarete, gaueko lore guztiak nireak! Eta zu, nire ederra... Ahoa itxiko dizut nire kortxo erraldoiarekin... Eta ez duzu gaueko lore gehiagorik isuriko... Orduan... Bete-betea zaudenean... Zurrupatu egingo zaitut! Nire aspiragailu erraldoiarekin! Eta orduan bai, nire ondoan egongo zara betirako, bai, betirako! Ja, ja, ja... Nire ederra! (<i>Pirritx gordelekuan barrena dabil</i>). PIRRITX: Uau! (<i>Dardarka</i>).</p>		
18.17	Kamioia dagoen tokia.	Porrotx eta haurrak kamioia dagoen tokira iritsi dira.
PORROTX: Hau da bidea! Eta mendi tontorrean dorrea!		

18.18	Madame Banu bere gelan.	Bakarrizketan jarraitzen du.
MADAME BANU: Eta mundutar inozoak, ez dira ohartu ere egingo ilargia falta zaiela... Zure bideo irudi bat gauero-gauero zeruan bota eta kitto! (<i>Pirritx ezkutatuta dago</i>) Gaueko loreak niretzat bakarrik direnean... Munduko boteretsuena izango naiz! Ni munduaren jabe! Madame Banu munduaren jabe! Ja, ja, ja... Bai...		
18.19	Kamioia dagoen tokia.	Kamioia dagoen tokian daude, goian dorrea ikusten da.
KATTALIN: Iritsi garela jakinarazteko, beste mezu bat bidaliko diot Pirritxi. (<i>Mezua idatziko du</i>) I-ri-tsi-ga-ra. PORROTX: Oso ongi! Aurrera! (<i>Dorrerantza abiatuko dira denak</i>).		

19. SEKUENTZIA		
GAIZTOEN ETXEAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
19.1	Gazteluan, aspiragailua eta kortxoa dauden gelan.	Berthol eta Roke kortxo erraldoi batekin maniobratan dabilta. Pirritx zertan ari diren ikusten saiatzen ari da baina ez du oso ondo ulertzen. Madame Banu bere gelan dago, dena martxan jartzeko prest.
MADAME BANU: Ja, ja, ja... Presta ezazue kortxoa! Nire ilargi maiteari ahoa tapatzeko garaia da! BERTHOL (Rokeri): Segi! ROKE: Bai		
19.2	Tube gela zeharkatzen.	Bitartean, Porrotzek eta hurrek gaztelura sartzea lortu dute. Tube gela zeharkatzen ikusiko ditugu. Beldurtuta doaz.
19.3	Kortxoa dagoen gelan Berthol eta Roke.	Rokek kortxo handia bizkarrean darama.
BERTHOL: Roke! ROKE: Eee! BERTHOL: Handik!! (<i>Eskuaz seinalatuz</i>). ROKE: A! (<i>Biratzean Bertholi buruan kolpea emango dio kortxoarekin. Berthol erdi zorabiatuta geldituko da</i>).		

19.4	Pirritx ezkutatuta.	Pirritxen mugikorra joka hasiko da, Nafarroako jota baten doinua.
<p>PIRRITX: Ai ama! Ai ama! Hau zarata! Ixo, kontxo! Mezua! Ai, ai, aurkitu egingo naute. <i>(Berthol eta Roke kortxoa jartzen ikusiko ditugu).</i></p> <p>PIRRITX: Ea lortzen dudan irakurtzea. <i>(Berthol eta Rokek kortxoa jarri dute eta zerura bidaliko dute).</i></p> <p>MADAME BANU: Ja, ja, ja...</p> <p>PIRRITX <i>(mezua irakurtzen ari da)</i>: “Iritsi gara”. Lortu dute!!</p> <p>MADAME BANU: Ja, ja, ja... Hor duzu zure txupetea maitea, hor duzu! Orain poliki-poliki gizenduko zara. Eta bete-betea zaudenean... Zzuuummm... Ja, ja, ja...</p>		

20. SEKUENTZIA		
LOREETATIK HURBIL		
Eszena	Kokapena	Egoera
20.1	Tube gelan.	Porrotx eta haurrak gaiztoen gazteluan daude, tubo gelan; Pirritxekin elkartu dira.
<p>PIRRITX: Lagunok, uste dut hemengo hauek zerbait gaiztoa prestatzen ari direla, oso, oso gaiztoa!!</p> <p>PORROTX: Nortzuk dira bi artaburu horiek?</p> <p>PIRRITX: Bi ez, hiru! Euren nagusia ere hor barruan dabil!</p> <p>SIDI: Pirritx, eta lorea?</p> <p>PIRRITX: Lorea, ezin izan dut bakar bat ere hartu. Oso goian daude, honelako ontzi handi batean.</p> <p>AMETS: Giza dorre bat eginda iritsiko gara! Goazen!</p> <p>PIRRITX: Bai, zatozte, hemendik!</p> <p>MADAME BANU: Ja, ja, ja... <i>(Likido batzuekin nahasteak egiten).</i></p>		
20.2	Loreen ontziaren ondoan.	Bata bestearen gainean jarri dira gora iritsi ahal izateko, baina erori egingo dira.
<p>PIRRITX: Aaiiii...!!</p> <p>PORROTX: Ai, ai... Mekatxiporretaaaa!!!</p> <p>PIRRITX: Azkar, azkar, azkar... Aaaaaah!! <i>(Erori egingo dira).</i></p> <p>MADAME BANU: Ja, ja, ja... <i>(Barreak bat-batean etenaz)</i> Zer izan da soinu hori?</p>		

ROKE: Nor dabil hor?
 BERTHOL: Hor!? Ez dago inor!
 MADAME BANU: Loreen ontziaren atzean!
 PORROTX: Goazen! Goazen!
 MADAME BANU: Nor dago? Nor dago nire loreak hartzen?
 ROKE: Hara! Barkuko mutila.
 BERTHOL: Isildu hadi inutila!
 MADAME BANU: Zein barkutako mutiko?
 BERTHOL (*Totelka*): Barku? Mutiko?
 MADAME BANU: Harrapatu azkar mukizu horiek! Segi! Ez dezatela ihes egin.
 (*Haurrek ihes egingo dute. Porrotzek, bidean ikusiriko plano batzuk hartuko ditu. Pirritzek, irten aurretik entxufe handi bat aterako du zulotik, eta dena itzalita geratuko da. Gizonak euren atzetik estropozka abiatuko dira baina ilunpetan.*)
 ROKE: Ez diat tutik ere ikusten! Non zaudete gordeta?
 PIRRITX: Ai, ai, ai...
 PORROTX: Azkar... Mekatxiporreta, mekatxiporreta!
 (*Haurrek ihes egingo dute.*)

20.4	Madame Banu bere lekuan.	Haserre dago Berthol eta Rokeri errieta egingo die.
------	--------------------------	---

MADAME BANU: Babalore pare! Piztu argia!
 BERTHOL: Argia! Eguzkiaren izardia!! (*Argia piztuko da eta Roke dardaraz egongo da.*)
 MADAME BANU: Nola jakin dute ume mukizu horiek gordelekurako bidea!? Segurtasun kameran ikusi beharko dugu, nor dabilen gu zelatatzen...! (*Bere baitarako*) Ume mukizuak! Dena ikusiko zuten!!
 (*Euren kameratan dena grabatuta dago: Pirritx ikusten da, gertu gertutik, entxufe kentzen duen unean.*)
 ROKE: Nortzuk dira!?
 BERTHOL: Begira, begira!
 ROKE: Nik Madame Banu, nik harrapatuko ditut! El Roke! Sekulako pasada emango diet! (*Karate keinuak eginez*) Berehala ahaztuko zaie ikusitakoa (*Ukabilkada bat emango dio bere kokotsari.*)
 BERTHOL: Trakets halakoa!
 MADAME BANU: Zuk... Zuk... marrazki bizidun batek ere irabaziko lizuke zuri! (*Ordenagailuan fitxa batzuk ageriko dira datu guztiekin eta argazki xelebreekin*) Hara hemen nor dugun... Joan zaitezte haur horien bila! Eta ekar itzazue nigana... Azkar! (*Oso haserre.*)

20.5	Gordelekuan barrena.	Haurrak ihesean ikusiko ditugu, bideko seinaleak norabidez aldatzen. Haurren bila irten diren gaiztoak, beti toki berera itzultzen dira, haurrek euren ihesaldian bide seinaleak aldatu dituztelako.
<p>ROKE: nola liteke, jiraka gabiltzak! Berriro hemen! BERTHOL: Mekaben! Jakintsuak esan zuen: “Borobila, burua buztanaren bila!” ROKE: Hau kaka pila! Alde egin zigutek berriz! Epotxak! BERTHOL: Zakurraren galtza motxak! <i>(Bila jarraitzen dute, atzera eta aurrera, toki guztietan begiratzen)</i> BERTHOL: Zakurraren putza! MADAME BANU: Zer egiten duzue berriro hemen! Alfer pare! Zuek, zuek... Zuen besoak ere korapilatuko zenituzkete! Eta askatzen asmatu ez! Alde nire bistatik! Eta ekarri hona ume horiek! Mugi!!</p>		

21. SEKUENTZIA		
PLANOEKIN ZER EGIN		
Eszena	Kokapena	Egoera
21.1	Haurrak beraien txokoan.	Arnasestuka iritsi dira beraien txokora.
<p>SIDI (<i>Triste</i>): Ezin izan dugu lorerik hartu... PORROTX: Lorerik ez, baina begira nik zer aurkitu dudan! (<i>Planoak ateratzen eta irekitzen ditu</i>). KATTALIN (<i>Jakin minez</i>): Zer da? PIRRITX: Erakutsi! DENEK: Oooo! XIMON: Ilargiaren marrazkiak dira! SIDI: Zer da traste luze hau? PORROTX: Hori, elefante urdin bat! KATTALIN: Eta gauza borobil handi hau? PORROTX: Ba, elefante urdinaren aulkia!?</p>		

<p>PIRRITX: Ze aulki eta ze tirikitauki! Hau kortxo handi bat da! Nik ikusi dut. Baina, zertarako nahiko zuten halako kortxo handia? PORROTX: Pirritx, elefante urdinaren baineraren zuloa tapatzeko. PIRRITX: Ez da posible! PORROTX: Zer arraio demontre izango da hau guztia!? PIRRITX: Laguntza eskatu beharko diogu norbaiti... MAKINTOSH: Nork lagunduko digu, Pirritx? PORROTX: Eta nork ezagutzen du ilargia? MAKINITAK: Ilargia? Ba, gauetan esna egoten denak... <i>(Denak isilik, eta begiak zabal-zabal elkarri begira, pentsakor).</i> PORROTX: Itsas-argia!! Bera egoten da esna gauero! PIRRITX: Ideia bikaina, alajaina! Itsas faroan bizi denak jakingo du! Berak lagunduko digu hau dena ulertzen! SIDI: Ni prest joateko! <i>(Altxatu egingo da).</i> PORROTX: Bihotza, burua, eskua! DENEK: Sentitu, pentsatu, ekin!</p>		
21.2	Bakoitza bere etxean.	Bakoitza bere gurasoei gutun bat idazten ari da. Etxetik aterako dira eta gutun horretan gurasoei nora doazen esaten diete.
<p>PIRRITX: Kutxi, kutxi, amona. PORROTX: Bi punttu. PIRRITX: “Gaueko loreen bila... DENAK: “Gaueko loreen bila gabiltza. Itsas faroko aztiari galdetzera goaz. Ez arduratu. Laster itzuliko gara. KATTALIN: Kattalin Pinpirin.</p>		

22. SEKUENTZIA		
GAU DESBERDIN BAT		
Eszena	Kokapena	Egoera
22.1	Gauean zerua.	Ilargiak kortxoa du ahoan, lorez loditzen ari da.
22.2	Gauean itsasaldean.	Gauaren irudia eta itsasargiaren argia. Gaueko loreak ez dira ikusten lurra ureztatzen. Hemendik aurrera, eszena kotidianoetan koloreak galtzen joango dira.

23. SEKUENTZIA		
BIHARAMUNA		
Eszena	Kokapena	Egoera
23.1	Herria urrunetik.	Oilarra kukurruka. Herria urrunean, eguna argitzen.
23.2	Herriko plazan.	Emakumea txakurra pasiatzen ari da. Nahiko haserre dago.
EMAKUMEA: Ez zaitut etxetik gehiago aterako, ez didazu kasurik egiten eta! Hombre! Por dios! Alde egin ezazu hemendik! Eh?! Aitzen al didazu, begiratzeko esaten dizut hitz egiten dizudanean?! Begiratudazu, ordea, esaten dizudanean! Begiratzeko!! Joño!		
23.3	Zelaian behia.	Behia belarra jaten ari da, ez da ezer nabaritzen.
23.4	Egunkari saltzailearen kioskoa.	Emakume bat egunkaria erostera doa, goizero bezala. Egunkari saltzaileak egunkaria gaizki tolestuta emango dio.
<p>BEZEROA: Aizu! Zer modu dira horiek!</p> <p>DENDARIA: Tori egunkaria!</p> <p>BEZEROA (<i>Egunkaria hartu eta badoa</i>).</p> <p>DENDARIA: Eeeh! Aizu! Eta dirua zer?</p> <p>BEZEROA: Aiba!</p> <p>DENDARIA: Hemen ez da ezer dohain, e!</p> <p>BEZEROA: Banoa!</p> <p>DENDARIA: Ei! Oso gutxi da!</p> <p>BEZEROA: Nahikoa da!</p> <p>DENDARIA: Nola nahikoa dela!?</p> <p>BEZEROA: Jo ezak paretik!</p> <p>DENDARIA: Beno, ikusiko duzu hurrengoan!</p> <p>BEZEROA: Aio!</p> <p>DENDARIA: Bai, bai, aio! (<i>Haserre</i>).</p>		

24. SEKUENTZIA		
BILAKETA		
Eszena	Kokapena	Egoera
24.1	Gaiztoen gordelekuan.	Madame Banu haserre dago.
<p>MADAME BANU: Haur madarikatuak! Planoak lapurtu ez dizkigute ba! Eta behar ditugu, aspiragailu eta proiektorea martxan jartzeko! Entzun al duzue! Zozo pare!</p> <p>BERTHOL: Karakola eta barea!</p> <p>ROKE: Hi barea, Berthol!</p> <p>BERTHOL: Eta hi karakola, Roke!</p> <p>MADAME BANU: Ixo! Zuen erruz lore bat galdu beharko dut; baldar halakoak! (<i>Lore bat abanikoan utziko du haurrak ikusteko</i>): Non zaudete txikitxook...? (<i>Iruditan ikusten ditu bere eskuetan</i>) Ui... Nire maiteak! (<i>Irribarrez, ironikoki goxo</i>) Baina, baina, baina nora zoazte... ja, ja, ja... Hilerriko bidean sartuko zarete! Berthol! Roke! Jarraituiezue! Eta udako kazkabarrarengatik, ez hona itzuli planorik gabe! Entzun duzue?! Hartu loretxo bat biderako, ea horrela azkarrago joaten zareten! Segiiii!</p>		
24.2	Berthol eta Roke kanpoan.	Gaueko lore bat kaiolan daramate, biak daude hari begira, liluratuta.
<p>ROKE: Hau duk hau lore bitxia!</p> <p>BERTHOL: Ilargitik iritsia!</p> <p>ROKE: Bai!</p> <p>(<i>Kaiola irekiko dute eta lorea eskuetan hartu. Lorearen distirarekin zorabiatzen hasiko dira</i>).</p>		
24.3	Berthol eta Roke lorearekin.	Erdi zoratuta kantuan hasiko dira, klipa.
24.4	Mendian zehar.	Haurrak itsasargira bidean ikusiko dira.
24.5	Berthol eta Roke zoratuta.	Kliparen jarraipena.

25. SEKUENTZIA		
ITSASARGIAN AZTIAREKIN		
Eszena	Kokapena	Egoera
25.1	Itsasargian.	Lagun taldea iristen da aztiarengana. Aztia ariketak egiten ari da.
<p>PIRRITX (<i>Urduri</i>): Ka... Ka-i-xo... Gu, gu... Herritik... Ga, ga...</p> <p>AZTIA (<i>Bere ariketak gelditu gabe</i>): Ausartak zarete... Aspaldian ez da inor hona iritsi.</p>		

<p>PORROTX: Herritik honaino etorri gara oinez eta, eta zure laguntza behar dugu, zeren, zeren, zeren irudi batzuk aurkitu ditugu, eta...!</p> <p>PIRRITX: Bai, eta, eta ez ditugu oso ondo ulertzen, eta, eta...</p> <p>AZTIA: Egon une batez! Gauza bakoitzak du bere momentua. Nekatuta egongo zarete, zatozte!</p>		
25.2	Zelai batean, itsasoa atzean ikusten dela.	Denak borobilean eserita, gertatzen denaz hitz egiteko prest.
<p>AZTIA: Zertan laguntzea nahi duzue?</p> <p>PORROTX (<i>Planoak atereaz</i>): Begira hemen. Zerbait gertatzen da ilargiarekin eta lore bitxi hauekin.</p> <p>AZTIA: Arrazoi duzue. Zerbait gertatzen ari da. Baina nik ere ez dakit zergatik gertatzen den.</p> <p>SIDI: Begira, hau Gaueko lorea da.</p> <p>AZTIA: Gaueko lorea? Bai, ugaria zen hemen ere. Ilargiak gauero mundua lo dagoenean ahotik isurtzen baititu Gaueko loreak. Lore horiek botere izugarria dute, majikoak dira, baina arriskutsuak ere bai, oker erabilia adibidez, izugarritzko logurea sortarazten dute. (<i>Berthol eta Roke lo daude</i>).</p> <p>PORROTX: Ilargiak ahotik loreak isurtzen dituela?</p> <p>SIDI: Ixo Porrotx! (<i>Ogi kozkor bat edo sartzen dio ahoan. Eta Porrotx, gorri-gorri jartzen da ito zorian</i>).</p> <p>AZTIA: Ez al zarete konturatu nola dauden zuhaitzak buru makur, landareak triste, jendea haserre, hori Gaueko loreak gero eta gutxiago daudelako da.</p> <p>PIRRITX: Hori da!! Kortxoa!!! Ahoa estali diote ilargiari kortxo handiarekin!!! Eta horregatik ez dago ia lorerik!</p> <p>KATTALIN: Eta lurreko guztiak lapurtu dituztelako, Sidiren herrikoak bezala.</p> <p>PORROTX (<i>Ito zorian, soinuak egiten laguntza eske, Kattalinekin kolpe bat emango dio</i>): Ja, ja, ja...Katxiporreta! Ia ito egin nauzue! Ju, ju, ju...</p> <p>AZTIA: Bi gau baino ez dira falta ilargi betea izateko. Orduan ilargia egongo da potoloen, lorez bete-beteta.</p> <p>PORROTX: Lagunok, zerbait egin behar dugu!</p> <p>AZTIA: Azken gauza bat (<i>Koloretako bola batzuk aterako ditu</i>). Tori, hauek dira benetako koloreak, ez utzi galtzen.</p>		

26. SEKUENTZIA		
GAIZTOEN GORDELEKUA		
Eszena	Kokapena	Egoera
26.1	Gazteluan, makinan gelan.	Madame Banu makinak martxan jartzen eta parrez. Bitartean aztiaren ahotsa off-ean entzungo da.
MADAME BANU: Ja, ja, ja... AZTIA (<i>Off ahotsean</i>): Zerbait gertatzen ari da. Ez al zarete konturatu nola dauden! Mundua kolorea galtzen ari da!		
26.2	Haurrak eta pailazoak zelai batetan.	Haurrak eta Pailazoak oinez zelai bat zeharkatzen ari dira. Aztiaren ahotsa off-ean entzungo da.
AZTIA (<i>Off ahotsean</i>): Nik ezin dizuet gehiago lagundu! PIRRITX: Eh! Lagunok! Sekula ikusi al duzue honelakorik?! Sagar grisak! PORROTX: Sagar grisak? Beltxi txakurrak egingo zion sagarrondoari pixa! (<i>Hanka altxatu eta pixx soinua aterako du</i>). DENAK: Ja, ja, ja... AZTIA (<i>Off ahotsean</i>): Zerbait gertatzen ari da! (<i>Madame Banu parrez, makinak martxan jartzen</i>) Landareak triste, jendea haserre! Jendea haserre!		

27. SEKUENTZIA		
ALDAKETAK		
Eszena	Kokapena	Egoera
27.1	Herriko plaza.	Pailazoak eta haurrak herriko plazan haserre beraien artean.
27.2	Jarleku batean etzanda Berthol eta Roke.	Pailazoak eta haurrak haserre dauden bitartean, Berthol eta Roke beraien loalditik esnatzen ari dira.
BERTHOL: Nor gera gu? ROKE: Zer gera gu? (<i>Burua altxatuko du eta haurrak ikusiko ditu</i>) Eh! AZTIA (<i>Off ahotsean</i>): Jendea haserre!		

27.3	Herriko plazan.	Haurrak iritsiko dira, baina gurasoak ere bai eta hauek oso haserre daude.
<p>Kattalinen AITA: Geldi! Geldi! Geldi! Zigortuta zaude! Aste bete telebistarik ikusi gabe! BI AMA: Gutxienez abisatu! BIKOTE ARRUNTA: Erabat arduratuta eduki gaituzue! Etorri hona! Ene, ene, ene... <i>(Denek batera bezala).</i> Andrearen AMA: Andrea, zatoz hona! Baina nola liteke! AMONA JOSEFINA: Baina, baina, baina non egon zarete?! PIRRITX: Oh, amona, zu ere bai! AMONA: Baserrira! Baserrira! <i>(Bakoitzak bere umea hartu eta tiraka etxera eramango du).</i> <i>(Porrotxi planoak eroriko zaizkio amonak tiratzean. Berthol eta Rokek haurrak joaten ikusiko dituzte, baina lurrera triste aurpegiaz begiratuko dute eta planoak aurkituko dituzte. Biak barrez hasiko dira).</i></p>		

28. SEKUENTZIA		
GAUEAN ASMO BAT LANTZEN		
Eszena	Kokapena	Egoera
28.1	Haurrak eta pailazoak bakoitza bere etxean.	Denak triste daude. Kattalin bere gelako aulki batean triste. Pirritx eta Porrotx etxeko leihoan. Ximon leihotik begira. Makintosh bere gelan makinitatxoarekin jolasten.
<p>PORROTX: Alkatxofi! PIRRITX: Melontxio!</p>		
28.2	Gaiztoen gordelekuan.	Berthol eta Roke gazteluan Madame Banuren aurrean azalpenak ematen, biak alai.
<p>ROKE: Madame Banu, Berorrek esan eta guk egin! BERTHOL: Fin-fin! ROKE: Ondo, azkar, arin! <i>(Esku batekin besteari kolpea emango dio eta min hartuko du).</i> BERTHOL: Enfin! ROKE: Hemen da Berorrek eskaturikoa Madame! MADAME BANU: Ongi, ongi da! Eta haurrak, zer egin dute haur mukizu horiek?</p>		

<p>ROKE: Haurrek Madame, gu ikusita hain sendo, indartsu, gogor, ja, ja, ja, ihes egin dute etxera, izututa gaixoak! BERTHOL: A ze dardarizoak! BIAK: Ja, ja, ja... MADAME BANU: Ekarri hona! <i>(Bertholek Rokeri emango dizkio eta Rokek Madame Banuri).</i> MADAME BANU <i>(Planoak irekiko ditu)</i>: Ongi da! Beraz, ilargi betea... Bihar! Bihar izango da! Ja, ja, ja... <i>(Berthol eta Roke ere parrez hasiko dira, baina Madame Banuk serio aurpegiarekin begiratuko die eta biak isilduko dira).</i></p>		
28.3	Gauean ilargia.	Ilargiaren irudia. Ia Ilargi betea dago, ahoan kortxoa duela ikusten da.
28.4	Baserriko leihoa.	Pirritx eta Porrotx baserriko leihoan.
<p>PORROTX: Patatontxi! PIRRITX: Porrupatatontzio! PORROTX: <i>(Mingaina aterako dio).</i> PIRRITX: <i>(Pirritxek ere burla egingo dio).</i></p>		
28.5	Ilargia ikusiko da.	Pirritx eta Porrotx biek batera ilargirantz begiratuko dute, bakoitzak bere koloreetako bolatxoa aterako du patrikatik, eta elkarri begiratuko diote. Ximon leihoan dago, honek ere bere bolatxoa aterako du.
28.6	Baserrian, logelan.	Pirritx, Porrotx eta Sidi logelan daude. Grabagailua dute eskuetan.
<p>PIRRITX: Hasi Porrotx. PORROTX <i>(Zurrungaka hasiko da).</i></p>		
28.7	Bakoitza bere etxean.	Kattalin, Amets eta Andrea ere bakoitza beraien logeletan daude bolatxoari begira. Kattalin eskailerak jaisten. Amets izarekin balkoitik. Bakoitza, gurasoak enteratu gabe etxetik aterako da. Amona pailazoak lo dauden ikustera joango da. Atetik Porrotxen zurrungak entzungo ditu eta dena ongi doan keinua eginez joan egingo da. Makintoshek bere bolatxoa eta bisera hartuko ditu etxetik ateratzeko.

29. SEKUENTZIA		
HAURRAK BERAIEI TXOKOAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
29.1	Haurrak beraien txokoan.	Triste daude koloreak galtzen ari direlako.
<p>KATTALIN: Begira nire bolatxo...</p> <p>ANDREA eta XIMON: Eta nirea...</p> <p>MAKINTOSH: Nirea ere, galtzen ari da kolorea, eta bideokonsolako irudiak ere bai!</p> <p>DENEK: Ilargira joan behar dugu!</p> <p>AMETS: Kohete bat egin dezakegu!</p> <p>PORROTX: Bihotza, burua, eskua!</p> <p>DENEK: Sentitu, pentsatu, ekin!!</p>		
29.2	Espazio-ontzia eraikitzen.	Denen artean traste batzuk jaso dituzte espazio-ontzia eraikitzeko.
<p>PIRRITX: Badugu nahikoa tresna!</p> <p>AMETS: Begira, ilargiak oso gutxi falta du betetzeko!</p> <p>PIRRITX: Gaur kohetea bukatu, eta bihar ikastolatik irtetea... Ilargiraaa!!!</p> <p><i>(Espazio-ontzia eraikitzen ari dira, zaratak entzungo dira. Ilargia ikusiko dugu zeruan).</i></p>		

30. SEKUENTZIA		
BIHARAMUNA		
Eszena	Kokapena	Egoera
30.1	Eguna argitzen.	Oilarra kukurruka.
30.2	Herriko plazan.	Emakumea txakurrarekin, haserre.
EMAKUMEA: Guau, guau, guau, guau..... <i>(Txakurrari).</i>		
30.3	Behia zelaian.	Bizkarreko pintak eroriko zaizkio.

30.4	Plazako kioskoan.	Egunkari saltzailea haserre bizian, bezeroa hurbiltzen zaio.
<p>BEZEROA: Egunkaria! DENDARIA: Ez daukat egunkaririk! BEZEROA: Eta hau zer da? DENDARIA: Hau nirea da! Hau ez da egunkaria! Nirea da! Egunkaria nirea da! Nirea da!! Nirea daaaa!!!! (<i>Jenio bizian</i>). (<i>Biak egunkariari tiraka hasiko dira, haserre. Egunkaria puskatu egingo dute</i>).</p>		

31. SEKUENTZIA		
IKASTOLAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
31.1	Ikastolan, gela barruan.	Irakaslea oso haserre dago, oihuka hitz egiten du.
<p>IRAKASLEA: Ez zazpi eta ez hamazazpi! Ezetz! Esan dizuet sei kontinente direla munduan! Eta izotzen lurraldean bizi direnek ez dutela gameluen esnerik edaten, eta basamortuan ez dute balerik arrantzatzen!!</p>		
31.2	Porrotx erdi lo.	Ametsetan hasiko da Porrotx (<i>Sepia kolorean</i>). Madame Banu haserre dago aginduak ematen: “Harrapa itzazue eta giltzapean sartu” irakurriko dugu. Pirritx eta Porrotx Berthol eta Rokeri adarra jotzen ari zaizkie. Madame Banuk aginduak ematen jarraitzen du: “Segi atzetik, babaloreak!”. Harrapaketan dabilta, Berthol eta Roke pailazoen eta haurren atzetik doaz. Pirritx harrapatuko dute. Porrotxek askatuko du. Porrotx txalupa batean dago baina ezin da tuneletik atera irteeran burdin barra batzuk daudelako. Ezin du ezer egin eta izututa dago: “Katxiporreta!!!”. Orduan...
31.3	Gelan	Irakaslea haserre
<p>Irakaslea: Porrotx, esnatu! Etxeko lanak! Azterketa! (<i>Txirrinak joko du eta denak korrika aterako dira gelatik. Porrotxek baloi bat botako dio irakasleari</i>).</p>		

32. SEKUENTZIA		
IA-IA PREST		
Eszena	Kokapena	Egoera
32.1	Espazio-ontzi aurrean.	Pailazoak eta haurrak espazio-ontzi aurrean daude. Dena prest dago.
<p>PORROTX: Bihotza, burua, eskua! DENEK: Sentitu, pentsatu, ekin!! PORROTX: Ju, ju, ju... <i>(Argazkia aterako dute eta espazio-ontzira sartuko dira).</i> PORROTX: Denok prest?! PIRRITX: Bai! AMETS: Froga bat egingo dugu, ea pizten den! <i>(Mandoak mugitzen hasiko dira, espazio-ontziak zarata txikitxo bat aterako du baina ez da ezer mugituko)</i> PIRRITX: Hau ez da mugitu ere egiten.... Zuhaitzaren enborra baino geldiago dago! KATTALIN: Esan nizuen ba nik... MAKINTOSH: “On”, sakatu “on” PORROTX: On eta on, on eta on! Hor konpon Maria Anton! Tramankulu honek ez daki hegan! AMETS: Zerbait falta du... Zerbait... SIDI: Lorea! Lore magikoa!</p>		

33. SEKUENTZIA		
GAIZTOEN ETXEAN BERRIZ		
Eszena	Kokapena	Egoera
33.1	Madame Banuren gelan.	Madame Banu oso pozik dago dena prest jartzeko ordua iritsi delako.
<p>MADAME BANU: Ene basurdetxo pare, iritsi da, iritsi da momentu handia! BERTHOL: Jakintsuak esan zuen: “Urak dakarrena, urak daroa; aspiragailuak dakarrena... <i>(Pentsakor)</i>... Gurekin geldituko da!” Ja, ja, ja... Ontzia prest, Madame. MADAME BANU: Ea, aspiragailua!</p>		

<p>ROKE: Listo, Madame. MADAME BANU: Proiektorea! BERTHOL: Dena prest, Madame. <i>(Madame Banuk botoi batzuk sakatuko ditu eta pantailara begira jarriko da).</i> MADAME BANU: Zazpi gradu hego mendebaldera... Bost gradu eta erdi iparraldera... Bi gradu hegoaldera... <i>(Roke zer ukitu ez dakiela dago, azkenean zerbaiti bira emango dio).</i> Hortxe! Hortxe! <i>(Eskuak igurtziko ditu).</i> Proiektorea! Zalდიaren konstelaziotik... Hegoalderantz... <i>(Bitartean Berthol Madame Banuren aginduak jarraituz makina martxan jartzen ari da).</i> Hortxe! Hortxe botako dugu ilargiaren irudia.</p>		
33.2	Haurrak loreen ontziaren ondoan.	Iritsi dira ezkutalekura eta loreen ontzia dagoen lekura igotzeko eskailera bat jarri dute.
33.3	Madame Banuren gelan.	Madame Banuk berean jarraitzen du, pantailara begiratzen du, oso pozik.
MADAME BANU: Oso gutxi falta du ilargiak erabat betetzeko... Ja, ja, ja...		
33.4	Loreen ontziaren ondoan.	Makintoshek lore bat hartu du eta bere kapelan sartu du. Bisera Pirritxi emango dio. Baina bat-batean Pirritxen mugikorrak joko du, Nafarroako jota baten soinua du. Madame Banuk harrituta begiratuko du.
<p>MADAME BANU: Eh! Zer izan da hori? <i>(Pantailan bere gazteluan arrotzak daudela agertuko zaio).</i> <i>(Berthol eta Roke dantzan hasiko dira. Pirritxek ezin du mugikorra isilarazi).</i> MADAME BANU: Nola izan zaitezke hain traketsa! Baina, baina, baina nola da posible! Berriro zuek hemen! Neronek, neronek harrapatuko zaituztet! <i>(Pailazoak eta haurrak ihes egiten saiatuko dira, baina Madame Banuk Porrotx eta Andrea harrapatuko ditu).</i> MADAME BANU: Ja, ja, ja... Zer uste zenuten, ihes egingo zenutela? ROKE <i>(Harro plantan)</i>: Ja, ja, ja... Guri ihes egin! BERTHOL: Nahi bai, baina ezin! MADAME BANU: Orain ikusiko duzue, marisukaldeak! <i>(Besteak korrika joango dira).</i> XIMON: Eh! Porrotx eta Andrea falta dira! Harrapatu egin dituzte! KATTALIN: Lagundu behar diegu! PIRRITX: Lorea lortu dugu baina lagunak galdu. SIDI: Zer egin behar dugu orain? MAKINTOSH: Baina ilargia zurrupatuko dute joaten ez bagara. AMETS: Zerbait egin behar da!</p>		

XIMON: Badakit! Zuek ilargira joango zarete eta ni hemen geldituko naiz eta lagunak askatuko ditut.
 PIRRITX: Bai! Eta hiru maltzur horien makina geldiarazi!
 XIMON: Zuek zoazte, azkar! Zoazte!
 PIRRITX: Bai, goazen!

34. SEKUENTZIA		
EGIA JAKITEKO UNEA		
Eszena	Kokapena	Egoera
34.1	Gaztelu barruan.	Porrotx eta Andrea aulki banatan daude eserita eta lotuta. Berthol eta Roke beraien ondoan daude, zutik eta haserre.
<p>ROKE: Zertara etorri zarete hona? Esan! BERTHOL: Esan, zuen defentsan! Zertan ari zarete? PORROTX (<i>ahoa estalita du eta ez zaio ulertzen zer esan nahi duen</i>): Kutxi-kutxi, kutxi-kutxi, ju, ju, ju... ROKE: Ba ote? Ez duzue hitz egin nahi? BERTHOL: Lasai! Hitz egingo duzue, bai! PORROTX (<i>Buruarekin ezetz eginez</i>). ROKE: Orain ikusiko duzue! (<i>Luma baten bila joango da kilimak egiteko</i>).</p>		
34.2	Espazio-ontzian.	Pirritx eta haurrak lorearekin espazio-ontzian sartzen ari dira.
34.3	Gaztelu barruan.	Roke eta Berthol Porrotx eta Andrearen inguruan dabilta. Rokek kilimak egingo dizkio Porrotxi.
<p>ROKE: Kili-kili-kili... PORROTX: Ju, ju, ju... (<i>Ahoa estalita du</i>).</p>		
34.4	Espazio-ontzian.	Pirritxek eta hurrek lorea otzara baten gainean jarriko dute eta lorea goraka hegan hasiko da, denek harrিতuta eta txundituta begiratuko dute.
DENEK: Oooooooo!!		

34.5	Gazteluan, Berthol eta Roke Porrotx eta Andrearekin.	Bertholek eta Rokek oraindik ez dute lortu Porrotxek eta Andreak ezer esaterik.
<p>ROKE: Ez duzue hitz egin nahi?! (<i>Porrotxek ezetz egingo du buruarekin</i>). Ume madarikatuak! MADAME BANU: Aker adar okerrak! Ez al duzue ikusten ahoa itxita dutela! BERTHOL (<i>Ahotik zapia kenduko dio Porrotxi</i>): Zenbat lagun zarete? PORROTX: Askatzen banauzue hatzen bidez esango dizuet. (<i>Bertholek eta Rokek Porrotx eta Andrea askatuko dituzte</i>). ROKE: Bat. Bat, bi... BERTHOL: Lau. Bi... ROKE: Bat, bi... BERTHOL: Sei, hamar... ROKE: Bi... PORROTX: Mmuuuuuu..... (<i>Hatzak adar bezala buruan jarritz</i>). MADAME BANU: Udako kazkabarraren izenean! Lotu itzazue bi horiek, bestela nik lotuko zaituztet! (<i>Berriro Porrotx eta Andrea lotuko dituzte</i>). MADAME BANU: Etorri hona! Makinak martxan jartzeko garaia da! ROKE: Ijjijji... (<i>Berthol proiektoretik begira jarriko da, betaurrekoak garbituko ditu. Bitartean, Madame Banu pantailara begira jarriko da</i>).</p>		
34.6	Espazio-ontzian.	Pirritx eta haurrak espazio-ontzian daude ilargira joateko prest.
<p>PIRRITX: Ordenagailuak prest? AMETS: Prest! PIRRITX: Astronautak prest? KATTALIN: Prest! MAKINTOSH: Den-dena prest! PIRRITX: Lagunok! Gora, gora, gora, gora, gora.... Abiadura, abiadura, ongiiiiii! Bagoaz!!! SIDI: Aio! (<i>Espazio-ontzia lurretik ilargira abiatuko da</i>).</p>		
34.7	Madame Banu bere gelan.	Madame Banu pantailari begira dago atzerako zenbaketa hasteko prest.
<p>MADAME BANU: Hamar! Mundu guztia dar-dar!</p>		

34.8	Espazio-ontzian.	Pirritx eta haurrak espazio ontzian turbulentziekin.
PIRRITX: Aaaaaa!!! KATTALIN: Ai! (Izututa). DENEK: Ooooo!! PIRRITX: Ai, ai!!		
34.9	Madame Banuren gelan.	Madame Banu pantailara begira.
MADAME BANU: Bederatzi! Parra galdu arazi!		
34.10	Espazio-ontzian.	Pirritx eta haurrak izututa.
PIRRITX: Ai, ai, ai.....		
34.11	Madame Banuren gelan.	Madame Banu zenbaketan murgilduta.
MADAME BANU: Zortzi! Ez izar eta ez Ortzi!		
34.12	Espazio-ontzian.	Pirritx eta haurrak pixka bat lasaitu dira.
PIRRITX: Uau!!!! KATTALIN: Zein polita! Begira zenbat izar! PIRRITX: Ah bai! AMETS: Begira Jupiter! Begira Pirritx, extralurtar bat! PIRRITX: Uah! Ze itsusia!!		
34.13	Madame Banuren gelan.	Madame Banu zenbaketan murgilduta.
MADAME BANU: Zazpi! Akabo gain eta azpi!... Sei! Den-dena doa okei! (<i>Pantailan puntutxo bat ikusiko du</i>). Zer arraio da ilargirantz doan puntu hori? Berdin dio! Beranduegi da, zurrupatu ezazue! Zurrupatu!!!		
34.14	Espazio-ontzia ilargian.	Espazio-ontzia ilargira iritsiko da. Denak ilargian daude kortxoaren bila.
MAKINTOSH: Hau izugarria da! Nire makinatxoan ere ez dago honelakorik! KATTALIN: Hemen gauzek ez dute batera pisatzen! PIRRITX: Hara! Begira han! Han dago kortxoa! Oh, ze kortxo handia! Kortxo! Goazen, kortxoa kendu behar dugu!!		
34.15	Madame Banuren gelan.	Zenbaketan jarraitzen du.
MADAME BANU: Bost! Mundua kaketan plost!		
34.16	Gaztelu barruan.	Porrotzek eta Andreak norbait beraien aulkiak tiratzen ari dela sentitzen dute.
34.17	Madame Banuren gelan.	Zenbaketan.
MADAME BANU: Lau! Egun argia ere gau!		
34.18	Gaztelu barruan.	Ximon ari da Porrotxi eta Andreari tiraka.

34.19	Madame Banuren gelan.	Zenbaketan murgilduta.
MADAME BANU: Hiru! Nik kolkoa bete diru!		
34.20	Gaztelu barruan.	Ximonek Porrotx eta Andrea askatuko ditu.
PORROTX: Aupa Ximon! Eta maltzurak hor konpon! ANDREA: Mila esker! Ilargian zeundetela uste genuen! XIMON: Besteak joan dira! Ni, zuei laguntzeko gelditu naiz. PORROTX: Orduan, radarrean ageri zen puntutxo hori... XIMON: Bai, gure lagunak dira!		
34.21	Madame Banuren gelan.	Zenbaketan, gero eta urduriago dago.
MADAME BANU: Bi! Nirea zara ilargi!		
34.22	Ilargian.	Pirritx eta haurrak kortxoaren ondoan daude.
SIDI: Hemen dago, aurkitu dugu! <i>(Pirritx kortxoari tiraka hasiko da, baina ezingo du).</i> PIRRITX: Ezin dut!!!		
34.23	Madame Banuren gelan.	Urduri dago baina pozik.
MADAME BANU: Bat! Nire eskuetan zauzkat!		
34.24	Ilargian.	Pirritx kortxoari bultzaka ari da, beste guztiak ez dakite zer egin.
MAKINTOSH: Bultza hemendik! KATTALIN: Bultza handik!		
34.25	Madame Banuren gelan.	Emozioa ezin eutsirik.
MADAME BANU: Zero! Ja, ja, ja... ROKE <i>(Ia konturatu gabe, aspiragailua martxan jarriko du)</i> : Aspiragailua martxan! BERTHOL: Eta loreak ilargi saltsan! MADAME BANU: Munduko boteretsuena naiz! Ja, ja, ja...		
34.26	Ilargian.	Pirritxek aspiragailuaren haizea nabaritutako du. Ezin du berak bakarrik kendu kortxoa, beraz, denak batera hasiko dira bultzaka.
34.27	Madame Banuren gelan.	Pozez zoratzen, bakarriketan ari da.
MADAME BANU: Zatoz, zatoz niregana! Zatoz niregana, zatoz! <i>(Berthol eta Roke ere pozik daude).</i>		
34.28	Ilargian.	Denak elkarrekin ari dira kortxoa kentzeko ahaleginetan.

34.29	Gaztelu barruan.	Porrotx aspiragailua dagoen lekura igoko da. Madame Banuk berean jarraituko du.
MADAME BANU: Zatoz, zatoz niregana!! (Porrotxek aspiragailua hartuko du eta Roke zurrupatuko du. Bitartean Pirritxek eta hurrek ilargiari kortxoa kentzea lortuko dute. Ondoren, Berthol zurrupatuko du).		
MADAME BANU: Zer da orain! (Zerbait entzun du). Aaaaaa!!!!!! (Aspiragailuak zurrupatu egingo du).		
34.30	Ilargia.	Kortxoa kendu diote eta berriz ere loreak isurtzen hasiko da. Pirritx eta haurrak, bakoitza lore baten gainean daude, hegan egiten.

35. SEKUENTZIA		
BASAMORTUAN		
Eszena	Kokapena	Egoera
35.1	Basamortuan.	Sidiren arrebak begiak irekiko ditu eta “jaima”tik korrika aterako da, dantzan hasteko prest. Sidi duna baten gainean dago. Denak daude pozik.

36. SEKUENTZIA		
KREDITOAK		
Eszena	Kokapena	Egoera
36.1	Kreditoak.	Pertsonaia bakoitzaren aurkezpena. Kredituak.

37. SEKUENTZIA		
BUKAERA		
Eszena	Kokapena	Egoera
37.1	Gazteluan.	Madame Banu, Berthol eta Roke kristalezko ontzi baten barruan daude.
MADAME BANU: Udako kazkabarrarengatik!! BERTHOL: Madame Banu, ez gara irtengo hemendik! ROKE (Negarrez): Ba nik irten nahi dut! MADAME BANU (Histeriko): A! A! A!!!! (Negarrez).		

